

20. ikasgaia.

## **EGINTZA PROZESALAK: MOTAK**

### **1. Egintza prozesal motak**

Egintza egiten duen pertsonaren arabera:

- Alderdiek
- Organo jurisdikzionalak
- Idazkari Judizialak

### **2. Alderdien egintzak**

Motak:

a) Ebazpen judiziala lortzeko egindakoak:

- Eskaerak
- Argudiatzeak
- Froga-ekarpena
- Ondorioak

b) Egoera juridikoak sortzen dituzten egintzak

### **3. Organo jurisdikzionalaren egintzak**

Ebazpenak:

- Erabakiak
- Autoak. Forma
- Epaiak
  - Forma
  - Epaiak organo kolegiatuetan

### **4. Idazkari Judizialak egiten dituen egintzak**

- Ordenazio-aginpideak
- Ebazpen-proposamenak
- Ezagutarazpen- edo komunikazio-egintzak:
  - Motak
  - Ezagutarazpenak egiteko erak
- Laguntza judizialaren egintzak
- Justiziari laguntzeko egintzak. Motak

## 1. EGINTZA PROZESAL MOTAK

Egintza prozesalak sailkatzeko orduan, egintza horren egilea, hau da, egintza burutzen duen pertsona hartuko dugu kontuan, eta, hala, honako hauek aipatuko ditugu: alderdiek egindakoak, organo jurisdikzionalak egindakoak, eta, bukatzeko, idazkari judizialak eta beste laguntzaile guztiek egindakoak.

## 2. ALDERDIEN EGINTZAK

Aurreko ikasgaietan dagoeneko azaldu dugunez, prozesu zibilean, alderdiek aurkeztu behar dituzte frogak eta argudioak (gogora dezagun hori printzipio esku-emailearen ondorioa dela).

Alderdien egintzei begira, bi motatakoak izan daitezke: alde batetik, ebazpen judiziala lortzeko asmoz egindakoak, eta, bestetik, egoera juridikoak sortzen dituztenak.

Lehendabiziko egintza mota organo jurisdikzionaletik **ebazpen jakin bat lortzera zuzenduta** egongo da; horren barruan, honako egintza mota hauek aipa ditzakegu:

- Eskaerak: organo jurisdikzionalari ebazpen jakin bat eskatzen dioten borondate-adierazpenak dira, bai auziaren mamiari buruzkoak, bai prozesalak. Demanda izango dugu eskaera-egintza baten adibide argia, han epaileari zerbait eskatzen zaio eta (demandatua kondenatzea, hain justu).
- Argudioak: horien bidez, alderdiek zerbait jakinarazten diote organo jurisdikzionalari. Egitatezkoak zein zuzenbidezkoak izan daitezke, eta eskatutako ebazpena eratzeko asmoz egiten dira.
- Froga-ekarpena: frogak proposatzea eta, ondoren, frogak egitea du helburu.
- Ondorioak: prozesuan zehar esandako edo frogaturiko guztia laburtzeko erabiltzen dira, eta, normalean, arrazoibide juridikoekin lotuta egiten dira.

Horrez gain, beste egintza mota bat aipatu dugu: **egoera juridikoak sortzen dituzten egintzak**. Sailkapen horretan, alderdiek egiten dituzten egintzak —baina ebazpen judiziala bilatzera zuzenduta ez daudenak— koka ditzakegu, esaterako, prokuradorearen ahalordea, amore ematea, alderdien arteko hitzarmen bat, eta abar. Horiek sailkatzea oso zaila da, izaera ezberdinekoak baitira, baina prozesuan eragin zuzena sortzea da beren ezaugarri bat.

### 3. ORGANO JURISDIKZIONALAREN EGINTZAK

Organo jurisdikzionalak egiten dituzten egintzak askotarikoak dira, eta, une honetan, gogoan izan behar dugu epaileek eta auzitegiek betebeharrak bikoitza dutela: alde batetik, jurisdikzionala, eta, bestetik, gobernatzeko betebeharrak; hainbat egintza egon daitezke bigarren betebeharrak horrekin lotuta.

Baina benetan interesatzen zaizkigunak, garrantzitsuenak, **ebazpenak** dira, betebeharrak jurisdikzionalarekin lotuta daudelako. Jarduera intelektual baten ondorioz egindako borondatezko baieztapenak dira ebazpenak, legeak bilatutako efektu juridikoa ezartzen dutenak. Prozedura Zibilarren Legeak bere 206. artikuluan esaten du hiru ebazpen mota daudela: erabakiak, autoak eta epaiak; aurrerago, banaka ikusiko ditugu.

Baina horiek aztertu baino lehen, bestelako sailkapen pare bat ere aipatuko dugu. Lehenik eta behin, ebazpenak solasaldikoak edo mamiai buruzkoak izan daitezke. Lehenengoek prozesuaren ordenazioari buruz dihardute; eta, bigarrenen kasuan, berriz, prozesuaren uziari buruz erabakiko dute.

Horrez gain, jada aipatu genuen bezala, ebazpenak behin betikoak edo irmoak izango dira. Hala, behin betikoek amaiera ematen diote lehenengo auzialdiari, edo beren aurrean jarritako helegiteak ebazten dituzte, baina haien aurka ere helegiteren bat aurkez daiteke eta, ondorioz, gorako organo batek ebazpen horren edukia aldatu (PZLaren 207.1. art.). Ebazpen irmoek, berriz, ez dute helegiterik onartzen —baliogabetzea lortzeko legeak ezarritako ez-ohiko bideak salbu— (PZLaren 207.2. art.).

#### **Erabakiak**

Erabakiak ebazpenik sinpleenak dira, eta prozesua ordenatzea edo bideratzea dute helburu.

Arazo prozesalak konpondu behar direnean eta horiek konpontzeko ebazpen bat beharrezkoa denean, erabakiak emango dira –legeak horrela dioelako, edo, orobat, arazoak alderdien eskubide prozesalak ukitzen dituelako . Beraz, erabakiak bi kasutan emango dira: idazkariaren aginpidea egokia ez denean, edo legeak auto bat beharrezkotzat aurreikusten ez duenean.

Beren kanpoko formari dagokionez, lehenengoz data eta lekua jasotzen dira; gero, erabakia eman duen epaitegia edo auzitegia adieraziko da eta, orobat, organo hori osatzen duten kideak nor diren; eta, horrez gain, agindutakoa, erabakiaren edukia, eta epailearen sinadura . Erabakiak ez ditugu zertan motibatu, baldin eta legeak horrela galdatzen ez badu (Prozedura Zibilaren Legearen 208.1 artikulua). Hala ere, nahiz eta legeek xedatu ez, auzitegiak komenigarritzat jotzen badu, motibazio labur bat eskain dezake.

### **Autoak**

Autoen bidez gai garrantzitsu eta gatazkatsuak ebazten dira, baina prozesuaren uzia ez direnak. Erabakiekin alderatuta, konplexuagoak dira, eta baita sakonagoak ere; autoak motibatzekeo beharra da horren isla,; hau da, lehen erabakietarako esandakoaz gain (data, lekua, sinadura, eta abar...) organo jurisdikzionalak berariaz arrazoitu beharko ditu autoak. Motibazio hori eskaintzeko, legeak galdatzen du egitatezko aurrekariak eta zuzenbidezko oinarriak paragrafo banandu eta zenbatuetan agertzeko.

Prozedura Zibilaren Legearen 206.2. artikulua zehazten dizkigu organo jurisdikzionalak autoak eman beharreko kasuak, besteak beste: probidentzien aurkako errekurtsuak ebazten direnean, auzialdi edo helegite bateko jardunei amaiera ematen zaionean –beti ere beren izapidetze arruntaren arabera amaitu aurretik-, demanda onartzea edo ez onartzea erabakitzen denean, kautelazko neurriez erabakitzen denean, eta abar

### **Epaiak**

Garrantzitsuenak dira, zalantzarik gabe, haien bidez auziaren mamia ebazten baita, **uzia**, alegia. Prozedura Zibilaren Legearen arabera, lehenengo edo bigarren auzialdian izapidetze arruntaren arabera prozesuari amaiera ematen dioten ebazpenak dira, eta, halaber, ez-ohiko helegiteak eta berrikuspen prozedurak ebazten dituztenak. Dena den, litekeena da epai batek auziaren mamia ez ebaztea, adibidez, prozesuan oinarri prozesalen bat falta izateagatik. Kasu horietan, organo jurisdikzionalak **absoluzio prozesal** izeneko epai berezia emango du, eta horrek soilik esango du oinarri prozesalen bat falta zela, mamia aztertu gabe.

Epaien **formari** dagokionez, lehendabizi, goiburua izango dugu, eta, han, honako hauek agertuko dira: data, lekua eta auzitegia, alderdiak, abokatu eta prokuradorearen datuak eta epaiketaren objektua zein den.

Bigarrenez, aurrekariak edo gertakariak ditugu; eta, horien ostean, zuzenbidezko oinarriak, hau da, epai jakin hori emateko epaileak erabili dituen oinarri edo argudioak –epaiak motibatze beharra argia da, beraz-. Bukatzeko, epaia bera aurkituko dugu, aldekoa edo kontrakoa izan daitekeena.

Une honetan, galde geniezaioke geure buruari **organo kolegiatuetan** –hots, auzitegietan- epaiak emateko modua nolakoa den. Horietan, epaitza eman aurretik, gatazkari buruz eztabaidatzen dute magistratu guztien artean, eta, gero, bozketa egiten da. Epaia gehiengo absolutuz erabaki beharko da. Ondoren, deliberazioan esandakoa kontuan hartuta, magistratu batek idatziko du epaia, magistratu txostengileak, hain zuzen ere.

Epaia eman ostean, edukia eta epaitza aldaezinak bihurtuko dira ziurtasun juridikoaren printzipioa dela eta. Dena den, epaian akatsen bat egotekotan (zenbaki batean, gehiketa batean, adibidez), edo epaileari zerbait ahaztuz gero, baliteke hori zuzentzea edo epaia osatzea. Horrez gain, alderdiek zerbait ulertzen ez badute, epaia argitzeko eska diezaiokete epaileei (Prozedura Zibileko Legearen 214. eta 215. artikulua), argibide horiek epaiaren funtsa aldatu ezin duten arren.

#### 4. IDAZKARI JUDIZIALAK EGITEN DITUEN EGINTZAK

Hasteko, gogoratu behar dugu fede publiko judiziala ematea dela idazkariaren betekizunik garrantzitsua; horren bidez, idazkariak sinaturiko agiriak edo dokumentuak egiazkotzat jotzen dira.

Halaber, prozesua ordenatzea da beste betekizun bat, edo prozesuaren autoak ordenatzea eta haiei bide ematea. Eginkizun hori betetzeko, **ordenazio-aginpideak** erabiltzen dituzte (Prozedura Zibileko Legearen 223. artikulua), inongo motibaziorik behar ez dutenak.

Horrez gain, lehenago baziren **ebazpen-proposamenak**, baina 1/2000 Prozedura Zibilaren Legean desagertu ziren. Lehen, haien bidez, idazkariak auto eta erabaki batzuen proposamenak egiten zizkion epaileari, eta epailea haiekin ados bazegoen, horiek sinatu eta, horrela, benetako auto edo erabaki bilakatzen ziren. Modu horretan, nolabait esateko, idazkariak lana errazten zion epaileari.

Beste alde batetik, **ezagutarazpen- edo komunikazio-egintzen** bidez, organo jurisdikzionalak prozesuari buruzko zerbait jakinarazten die alderdiei zein beste pertsona batzuei. Prozedura Zibilaren Legearen 149. artikuluan aurki ditzakegu eta lau motakoak izan daitezke: jakinarazpenak, deiak, zitazioak, eta errekerimenduak).

Ezagutarazpen-egintza bakoitzak helburu jakin bat izango du, Prozedura Zibileko Legearen 149. artikulua ezartzen dituenak, hain zuzen ere, baina orain ez gara bereizketa horietan murgilduko.

Normalean, egintza horiek idazkariak berak egiten ditu, baina baliteke idazkariak eginkizun hori beste laguntzaile bati delegatzea, Prozedura Zibilaren Legearen 152.1. artikulua aurreikusten duenaren arabera.

Idazkariak alderdiei ezagutarazpen edo komunikazio horiek helarazteko, hiru bide izango ditu:

- Alderdien prokuradoreei ematea edo helaraztea.
- Postaz edo telegramaren bidez bidaltzea; eta, hala egitekotan, alderdiak komunikazio jaso duela argi geratu behar da.
- Alderdiei edo orokorrean jasotzaileari zuzenean ematea, edo beraren etxean edo auzitegian.

Aipatutako hiru bide horien bidez jasotzaileari ezagutarazpena ematea edo helaraztea ezinezkoa bada, beste bide berezi bat aurreikusten da, erabat subsidiarioa dena: ediktuen bitartez (Prozedura Zibilaren Legearen 164. artikulua). Modu horretan, komunikazioa auzitegiaren iragarpen-taulan jartzen da, eta, horrez gain, alderdiren batek nahi badu, aldizkari ofizialean eta egunkari batean jartzeko aukera ere badago.

**Laguntza judizialaren egintzak** aipatzeak ere merezi du. Beste organo judizial bati laguntza eskatzea da horien helburua; adibidez, auzitegi bat kokatzen den herritik at egin beharreko lekukotza aurrera eramateko, beste herriko auzitegiari laguntza eska dakioke egintza horien bidez. Prozedura Zibilaren Legearen 169. artikulua eta hurrengoetan jasota daude, eta bi motatakoak izan daitezke: barne mailakoa eta nazioarte mailakoa.

Bukatzeko, **justiziari laguntzeko egintzak** ditugu, Konstituzioaren 118. artikuluaekin lotura dutenak. Artikulu horrek justiziari laguntzeko beharra ezartzen du; ezarpen hori bete ahal izateko, hiru motatako egintzak aipatuko ditugu:

- Aginduak
- Ofizioak: egintza horiek eta aurrekoak —hots, aginduak— funtzionarioekin harremanetan jartzeko, eta ziurtagiri edo testigantzak eskatzeko erabiltzen dira.
- Azalpenak: ministro edo legebiltzarrei zerbait eskatzeko erabiltzen dira; nahiko hotsandikoak edo formalak dira.